



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko martxoaren 14a

31. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-25/PRO-00009. Foru-lege proposamena, Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea aldatzen duena. Nafarroako Alderdi Sozialista, Unión del Pueblo Navarro eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu dute (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-25/MOC-00037. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osasun mentalarari buruz nahiz suizidioaren drama sozialari buruz sensibilizatzeko kanpaina berriak taxutu ditzan. María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkeztu du (5. or.).

—11-25/MOC-00038. Mozioa, zeinaren bidez desadostasuna eta errefusa adierazten baitira Alaitz eta Ezkaba ikastetxe publikoetan 2 urteko gelak ezarriko direla-eta. EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (6. or.).

—11-25/MOC-00039. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aurtengo abuztuaren 31 baino lehen azterlan sakon bat egin dezan merkatu librean alokairuko etxebizitza-edukitzaile handien –bai pertsona fisikoen, bai juridikoen– tributazioari buruz. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkeztu du (8. or.).

—11-25/MOC-00040. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita autonomia-erkidegoen zorra nork bere gain hartzeari buruz Zerga eta Politika Fiskaleko Kontseiluak 2025eko otsailaren 26an hartutako erabakiak ez dezan ondorioz eduki Nafarroaren oinarri-urteko ekarpenean. Adolfo Araiz Flamari-que jaunak aurkeztu du (10. or.).

—11-24/MOC-00119. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren tresnak ezar ditzan Nafarroaren ondarearen gaineko kultur astearen proiektua ezartzeko aukera eman dakien hori egin nahi duten ikastetxeei. Mozioa erretiratzea (11. or.).

—11-25/MOC-00015. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako gazteriaren kultur ekoizpena bultzatzen dezan, Arte Gaztea fabrikak abian jarrita. Mozioa erretiratzea (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- 11-25/PES-00116. Galdera, 2021eko abenduan sinatu zen PIREPen funtsen hitzarmenaren hamahirugarren klausula ez betetzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00117. Galdera, BSHren Ezkirozko plana ixtea ekiditeko bilerei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (13. or.).
- 11-25/PES-00118. Galdera, Latasako eta Iruña-Sanduzelaiko uraren kalitatearen kontrol automatikorako sareko estazioei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00119. Galdera, nitratoek urak kutsatzearen diagnostikoan herritarrek parte hartzea sustatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/PES-00120. Galdera, energia elektrikoa ekoizteko eta banatzeko instalazioetako obretan zuhaitzak mozteari eta basoberritzeko proiektuak egiteari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/PES-00121. Galdera, nitratoen aitzinean zaugarriak diren eremuei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/PES-00122. Galdera, Estellerriko eskualdeko garraioa urgentziaz hobetzeari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00123. Galdera, Martzillan inauterian izandako gertaerei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (19. or.).
- 11-25/PES-00124. Galdera, Nafarroan diren lur arraroen mapa bat prestatzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (19. or.).
- 11-25/PES-00125. Galdera, jakiteko ea hitzarmenik sinatu den ECOEMBESen ontzien eta ontzietako hondakinen SCRAP-EEZSKrekin (ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboa). Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (20. or.).
- 11-25/PES-00126. Galdera, Nafarroako toki-entitateetako polizietako funtzionarioak Nafarroako Foruzaingoan sartzeko araudiari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (21. or.).
- 11-25/PES-00127. Galdera, Tuterako Ospitaleko eskanerraren matxurari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (22. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-24/ELCC-00001. Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Kontseiluko kontseilari bat hautatzea. Hautagaia aldarrikatzea (23. or.).
- 11-23/GRP-00007. Foru parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartearen uztea (24. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-25/PRO-00009. Foru-lege proposamena, Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista, Unión del Pueblo Navarro eta Geroa Bai talde parlamentarioek Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena aurkeztu dute, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru-lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 44. artikulua hala xedaturik, Nafarroak eskumen osoa dauka ikuskizunen alorrean. Eskumen hori baliatuz, Nafarroako Foru Komunitateak martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea onetsi zuen, ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituena.

Nafarroako Gobernuak erregelamendu-sorta bat onetsiz garatu du arau hori. Halatan, ekainaren 29ko 249/1992 Foru Dekretuaren bitartez Zezen Ikuskizunen Erregelamendua onetsi zen; eta irailaren 23ko 202/2002 Foru Dekretuaren bitartez, Establezimendu, ikuskizun publiko eta josteta jardueren Katalogoa onetsi eta Enpresa eta Lokalen Erregistroak arautzen dira.

Nafarroaren araudi berekirik ezean, eta araudi horrekin kontraesanean ez dagoen orotan, aplikatu beharrekoak dira gai horri buruzko estatu-erregelamenduak, Nafarroako ordenamendu juridikoaren ordezkotzat zuzenbide gisa; bereziki, abuztuaren 27ko 2816/1982 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Ikuskizun publikoetako eta josteta-jardueretako poliziaren Erregelamendu Orokorra.

Martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 5. artikulua dioenez, kasuko jarduera-lizentzia eman ahal izateko, eskatzaileak frogatu beharko du lokalak bete egiten dituela oinarrizko eraikingintza-arauetan eta ikuskizun edo josteta-jarduera mota bakoitzerako egiten diren berriarazko erregelamenduetan eskatzen diren baldintza teknikoak.

Kontua da oinarrizko eraikingintza-araua indargabetua izan zela eta, beraz, ez dela jada aplikatzekoa. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da aipa-

tu artikulua aldatzea, oinarriko eraikingintza-arauari buruzko aipamena ezabatuz, eta ikuskizun publikoetarako nahiz josteta-jardueretarako lokal guztientzat ezarriz martxoaren 17ko 214/2006 Errege Dekretuz onetsitako Eraikingintzaren Kode Teknikoaren estipulazioak bete beharra.

Eraikingintzaren Kode Teknikoa onetsi zen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legean jasotako xedapenak indarrean zeudelarik, eta lau urtean behin egin beharrekoak diren aldizkako berrikuspenen xede da. Horrenbestez, eta instalazio batzuen eraikuntza-obren norainokoa kontuan harturik, hein handiagoan betetzen ditu gaur egungo baldintza orokor, funtzional eta teknikoak, horrek ezertan eragotzi gabe Nafarroako Gobernuak gero batean foru dekretu bat onestea, Nafarroan establezimendu publiko guztiek bete beharreko baldintza teknikoak jasoko dituen.

Eraikingintzaren Kode Teknikoa honela definitzen da Eraikingintza Antolatzeke azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 3.2 artikuluan: "eraikinen eta haien instalazioen oinarriko kalitate-baldintzak ezartzen dituen arau-esparrua, halakoa zeinak ahalbidetu egiten baitu aurreko oinarriko baldintzen betetzea", zeinak funtzionaltasun, segurtasun eta bizigarritasunari buruzkoak baitira. Aldizka eguneratuko da, "teknikak duen bilakaeraren eta gizartearen eskariaren" arabera.

Eraikingintzaren Kode Teknikoaren aplikazioaren bidez, establezimendu publikoetako instalazioen segurtasunik handiena bermatuko da, adibidez honelakoen ebakuazio-baldintzei dagokienez: korridoreak, harmailetak eskailerak, galeriak, ebakuazio-korridoreak eta publikoarentzako edonolako instalazio eta tokietan. Ez da beharrezkoa aplikatzea oraindik indargabetu gabe dauden Ikuskizun Publiko eta Josteta Jardueretako Poliziako Erregelamendu Orokorren artikulua batzuk (erregelamendu hori abuztuaren 27ko 2816/1982 Errege Dekretuz onetsi zen), aplikatuak izaten ari zire-

nak foru-ordenamendu juridikoaren ordeko zuzenbide gisa.

Horrela, argiagotu egiten da aplikatzekoa den araubide juridikoa, bateratu egiten dira bai teilatutako bai zerupeko kirol-instalazioetarako eskaturiko baldintza teknikoak, eta establezimendu publikoetako instalazioen segurtasunik erabatekoena bermatzen da, horretarako aplikatuz Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta Nafarroako Foru Komunitateak onets litzakeen geroagoko arauak.

Azaldutakoagatik, proposatzen da foru lege bat onets dadila, zeinaren bitartez aldatuko baita Ikuskizun Publikoari eta Josteta Jarduerari buruzko martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 5. artikulua. Honela idatzita geratuko litzateke:

Artikulu bakarra. Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen aldaketa.

5. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

"5. artikulua. Kasuko jarduera-lizentzia emateko, beharrezkoa izanen da eskatzaileak frogatzea dezala lokalak bete egiten dituela zenbait baldintza tekniko, zeinak ezarrita baitaude martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuz onetsitako Eraikingintzaren Kode Teknikoan eta ikuskizun nahiz josteta-jarduera mota bakoitzerako berariazko erregelamenduetan, salbuespena izanik abuztuaren 27ko 2816/1982 Errege Dekretuz onetsitako Ikuskizun publikoetako eta josteta-jardueretako poliziaren Erregelamendu Orokorren I. Tituluko II. Kapituluako 26, 27, 28, 29, 32 eta 33. artikulua, zeinak ez baitira Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzeko modukoak".

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek NAO n argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00037. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita osasun mentalari buruz nahiz suizidioaren drama sozialari buruz sentsibilizatzeko kanpaina berriak taxutu ditzan

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita osasun mentalari buruz nahiz suizidioaren drama sozialari buruz sentsibilizatzeko kanpaina berriak taxutu ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 219. artikuluan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Jarraipena eginen duen batzordea: Osasun Batzordea.

Zioen azalpena

Gure Lege Nagusiaren 15. artikulua esplizituki bermatzen du bizitzeko eskubidea, zeina "eskubide funtsezko eta tronkala baita, zeren suposizio ontologiko hori gabe gainontzeko eskubideak ez liratekeen existitu ere eginen". Halaber, Espainiako Konstituzioaren 39. artikulua adingabeen

babes integrala ezartzen du politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidarietako bat gisa.

Botere publikoek bizitzaren defentsa aldeztu behar dute, aho batez eta salbuespenik gabe. Halatan, suizidioarena da aurre egin beharreko arazo sozial handienetako bat; eta oso bereziki, gazteenak diren suizidioarena.

Espanian eguneko 11,2 suizidio gertatzen dira. Hortaz, urtero milaka hildako eragiten duen drama bat dela esan dezakegu.

Datu horiek, noski, burututako suizidioei buruzkoak dira. Izan ere, datu horiei suizidio-ahaleginak gehitu behar zaizkie, eta horiei buruz ez dago informazio sistematizaturik. Azterlan batzuen arabera, "suizidio-ahaleginak suizidio burutuak baino 20 bider gehiago gertatzen dira".

Gazteen suizidioari dagokionez esan beharra dago hori dela heriotza ez-naturalaren lehenbiziko zergatia 15 urtetik 29 urtera bitartekoen artean.

Suizidioaren auziari erabakitasunez heldu behar zaio, eta, horretarako, botere publikoek bizitzaren eta zaintzaren kultura sustatu behar dute: hori da, hain zuzen ere, botere publikoek aurre egin beharreko erronka sanitario eta sozial handietako bat.

Horregatik guztiagatik, Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak honako erabaki-proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. Osasun mentalari eta suizidioaren drama sozialari buruzko sentsibilizazio-kanpaina berriak taxutu ditzan, azpimarra gazteen suizidioaren errealitatean jarrita.

2. Espainiako Gobernua premia dezan Osasun Mentalaren Estrategia Nazionala eguneratu dezan,

suizidioaren eta jokabide autolitikoen prebentzioa indartzeko.

3. Osasun mentalarekin lotutako proiektuak susta ditzan, bereziki gazteen artean, herritarrei zerbitzu psikologikoetara eta, oro har, arlo horretako laguntza profesionalera hurbiltzea errazte aldera.

4. Nafarroako haurren eta nerabeen suizidioari buruzko txosten bat egin dezan, errealitate horri buruzko ezagutza sakonagoa izateko eta botere publikoek horri zorrotasunez ekiteko.

5. Inplikaturako eragile guztiei (sanitarioak, irakasleak eta senideak) osasun mentalean formakuntza ematera bideratutako aurrekontu-zuzkidura handitzea susta dezan. Halaber, osasun mentaleko arazoak artatzeko profesional espezialisten kopurua handitzea bultzatzea dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/MOC-00038. Mozioa, zeinaren bidez desadostasuna eta errefusa adierazten baitira Alaitz eta Ezkaba ikastetxe publikoetan 2 urteko gelak ezarriko direla-eta

EH BILDU NAFARROA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez desadostasuna eta errefusa adierazten baitira Alaitz eta Ezkaba ikastetxe publikoetan 2 urteko gelak ezarriko direla-eta.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak "Aula de 2 años en las escuelas infantiles/2 urteko gelak haur eskoletan" lantaldeko Barañaingo eta Ezkabako Ikastetxe Publikoetan ezarri nahi duen 2 urteko gelaren proiektu pilotua baztertzeko.

Zioen azalpena

Abenduaren erdialdean, Alaitz zein Ezkaba eskoletako zuzendaritza-taldeek dei bana jaso zuten Hezkuntza Departamentutik, 2 urteko ikasleentzat bi ikastetxetan gela bat irekitzeko aukera jakinarazteko: Barañaingo Alaitz IPn eta Antsoaingo Ezkaba IPn. Gaur egun 3 eta 12 urte bitarteko ikasleak hezteko dira.

Egun batzuk geroago, eta hezkuntza-komunitateari aldez aurretik abisatu eta kontsultatu gabe, Hezkuntza Departamentuko Azpiegitura Zerbitzuko bi pertsona zentzura joan ziren, planoak eskuan zituztela, ezarpen posible hori baloratzeko. Prozesu hori behar bezalako plangintzarik gabe eta irizpide pedagogiko egiaztatuak kontuan hartu gabe egin da, eta kezka handia sortu du Alaitz eta Ezkaba IPko hezkuntza-komunitateetan, uste baitute ikastetxean 2 urteko gela bat irekitzea ez dela egokia, eta ez dela onuragarria ikasleentzat, ezta ikastetxeko hezkuntza-proiektuarentzat ere.

Alaitz eta Ezkaba ikastetxeetan 2 urteko gela ezartzearen aurka egoteko arrazoiak

– **0-3 urteko ikasleen eskubideen eta beharren aurka doa.** 0-3 urteko etapak berriazko hezkuntza-ikuspegia eskatzen du, haurren eboluzioibildideak errespetatuko dituen. Adin-tarte horretan, ongizate fisikoa, soziala eta emozionala, neurri handi batean, haien beharrezan fisiologikotara eta garapenbeharretara egokitutako espazio eta dinamiken mende dago.

– **Haur Hezkuntzako Eskola da etapa honetarako ingurunerik egokiena.** Haur-hezkuntzako ikastetxeek azpiegitura egokituak eta 0-3 etaparako berariazko hezkuntza-proiektua dituzte. Ingurune horretako haurrak bereizteak arretaren kalitatea eta haien premiei erantzutea murrizten ditu.

– **0-3 urteko hezkuntza-zikloa haustea dakar.** Etapa honetarako diseinatuta ez dagoen ikastetxe baten barruan ikasgela isolatu bat ezartzeak 0-3 urteko hezkuntza-zikloaren koherentzia eteten du, jarraitutasun pedagogikoa zailduz eta haurren garapenari eraginez.

– **2 urteko gela isolatuta geratuko litzateke integratu gabeko proiektu baten barruan.** Ikastetxeko irakasle-taldeak ez du prestakuntza espezifikorik 0-3 etapan, eta horrek zaildu egingo du 2 urteko gelako profesionalen laguntza egokia. Gainera, etapa honetako hezitzaileek ez lukete talde egonkorrik izango behaketan, esku-hartzean eta ebaluazioan laguntzeko, eta horrek laneko eta pedagogiako isolamendu-egoera ekarriko luke.

– **Bereizketa handia sortuko du hezkuntza-komunitatearen barruan.** Etapa honetarako diseinatuta ez dagoen ikastetxe batean 2 urteko gela

bat sortzeak desberdintasunak eta tentsioak sortuko ditu ikasle, familia eta profesionalen artean, hezkuntza-sisteman lehendik dauden konparaziozko bidegabekerietan sakonduz.

Bestalde, funtsezkoa da azpimarratzea oraindik ez dela Iturrama, Doña Mayor eta Arroizko La Balsa zentroetan ezarritako proiektu pilotuen ebaluaziorik egin, eta, beraz, edozein erabakik esperientzia horietan lortutako emaitzen alde aurreko analisiaren mende egon beharko lukeela.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak honako hau erabaki du:

1. Alaitz eta Ezkaba Ikastetxe Publikoetan 2 urteko gelaren proiektu pilotua sortzearekin ados ez dagoela adieraztea.

2. Hezkuntza Departamentuari eskatzea geldiaraz dezala Alaitz eta Ezkaba Ikastetxe Publikoetan 2 urteko gela bat ezartzearen asmoa.

Iruñean, 2025eko martxoaren 4an

Eledunak: Eneka Maiz Ulaiar, Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio, Carlos Guzmán Pérez

11-25/MOC-00039. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita aurtengo abuztuaren 31 baino lehen azterlan sakon bat egin dezan merkatu librean alokairuko etxebizitza-edukitzaile handien –bai pertsona fisikoen, bai juridikoen– tributazioari buruz

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita aurtengo abuztuaren 31 baino lehen azterlan sakon bat egin dezan merkatu librean alokairuko etxebizitza-edukitzaile handien –bai pertsona fisikoen, bai juridikoen– tributazioari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatua eta bozkatua izateko.

Zioen azalpena

Gizartearen parte handi batentzat, ezinezkoa da merkatu librean etxebizitza bat eskuratzea.

2017tik hona, etxebizitzaren prezioa etenik gabe igo da Espainiako estatuan eta Nafarroan, langile-familiek aurre egin ezineko erritmoan.

NASTATen azterlan baten arabera, 2024ko abenduaren 9an argitaratua, etxebizitza berrien salerosketa-prezioen indizearen urtetik urterako aldaketaren tasak % 14,7ko gorakada agertzen du.

IDEALISTA atariaren arabera, Nafarroan % 6,6 igo zen errenta 2024an, metro koadroak 10,5 euroko prezioa izateraino batez beste; Nafarroako hiriburuan % 7,4koa izan zen igoera, halako moduan non metro koadroaren prezioa 11,2 eurokoa baitzen batez beste.

2024an hitzarmen bidez itundutako soldatak, ordea, % 3,54 igo ziren batez beste. Enplegatu publikoen kasuan, soldatak % 2,5 igo ziren 2024an. Hau da, etxebizitzaren prezioa soldatak baino askoz ere gehiago ari da igotzen batez beste. Joera horrek, jakina, eragina du gizartean.

Iruñeko Udalaren azterlan baten arabera, familiek beren errentaren % 45 erabiltzen dute etxebizitzaren kostuei aurre egiteko. Eta eman-tzipazio-adina 29,7 urtekoa da; hau da, orain dela 9 urte baino 2,3 urte gehiagokoa.

Merkatu librean etxebizitza bat arrazoizko prezioan lortzea arazo handia bada ere, higiezinaren transakzio ugari egiten dira oraindik. Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, 2024ko urrian 69.418 transakzio inskribatu ziren Espainiako estatuko erregistroetan, 2023ko urrian baino % 51,3 gehiago hain zuzen ere. 2007tik (higiezinaren bur-buila betean), hileko zifrarik handiena da hori.

Espainiako estatuan, azken bi urteotan, etxebizitzaren % 56 hipotekarik gabe erosi dira. Gainera, gutxienez ere zortzi higiezin dauzkaten sozietateen esku daude Jabetza Erregistroan azken urteotan inskribatu diren etxebizitzaren ia erdiak. Eta azken hamarkada honetan, jabe handien kopurua % 20 igo da.

Hau da, gertatzen ari dena da onibarrak jada badauzkatenak direla etxebizitzak erosten dituztenak. Aitzitik, etxebizitzarik ez daukatenetako askok ezin dute etxebizitzarik eskuratu.

Enpresa eta inbertsio-funts horiek alokairuko merkatura bideratzen dituzte etxebizitzak, irabazi handiak ekartzen dituen inbertsio bihurtu baita. Merkatu horrek sortzen dituen errentak izugarri handiak dira.

Nafarroa ez da ezberdina, eta hemen ere ari da aldatzen jabearen profila; izan ere, hamaika enpresa-talderen esku daude alokatutako hamar etxebizitzatik bi, eta proportzio hori gero eta handiagoa da. Alegia, Nafarroan gero eta etxebizitza gehiagoren jabe dira talde handiak –Adania enpresa-taldea edo Estatu Batuetako Blackstone funtsa, adibidez–.

Legedi indardunaren arabera, etxebizitza-edukitzaile handi dira bizitegi-erabilerako hamar

hirilur-higiezin baino gehiagoren titularrak diren pertsona fisiko edo juridikoak edo bizitegi-erabilerrako 1.500 metro koadro baino gehiagoko azalera eraikiaren titularrak direnak, garajeak eta trastelekuak kenduta betiere. Etxebizitza-edukitzaile handi dira, orobat, bizitegi-erabilerako bost hirilur-higiezin edo gehiagoren titularrak diren pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldean badaude, zeina tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaraturako udalerrri guztiek osatzen baitute.

Etxebizitza-edukitzaile handien eraginez, etxebizitzaren espekulazio neurrigabea eta etxebizitzaren merkantilizazioa gertatzen ari da, eta horrek ondorio negargarriak dauzka gehiengo sozialari begira, lehen aipatu bezala. Hots, etxebizitza-edukitzaile handiek erantzukizun handia daukate etxebizitza bat arrazoizko prezioan lortzearen arazo larriari dagokionez.

Etxebizitza eskubide bat denez, eta, hartara, erakunde publikoek eskubide hori bermatu behar dutenez, etxebizitzaren merkaturia orekatzeko neurriak hartu beharra dago. Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Lehenengoa: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurtengo abuztuaren 31 baino lehen azterlan sakon bat egin dezan merkatu libreko alokairuko etxebizitza-edukitzaile handien –bai pertsona fisikoen, bai juridikoen– tributazioari buruz. Azterlan horretan jaso beharko dira edukitzaile-motaren arabera xehakaturako datuak, zer kenkari edo zerga-arinketa eta zerga-salbuespeni lotzen zaizkion, jabetzan daukaten etxebizitza-kopurua eta horiek zer lekutan dauden.

Bigarrena: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurtengo abuztuaren 31 baino lehen proposamen bat aurkez dezan, merkatu libreko alokairuko etxebizitza-edukitzaile handiek (Nasuvinsaren Alokairu Poltsatik kanpo) ezin izan dezaten baliatu kenkaririk edo zerga-salbuespenik, eta horien tributazioan errekarigu gehigarri bat ezartzeko aukera balora dezan. Proposamen horrek jaso beharko du planteaturako neurrien inpaktu ekonomiko eta sozialari buruzko analisi bat, bai eta neurri horiek ezartzeko formula zehatzak ere.

Iruñean, 2025eko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-25/MOC-00040. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita autonomia-erkidegoen zorra nork bere gain hartzeari buruz Zerga eta Politika Fiskaleko Kontseiluak 2025eko otsailaren 26an hartutako erabakiak ez dezan ondoriorik eduki Nafarroaren oinarri-urteko ekarpenean

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamari-que jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita autonomia-erkidegoen zorra nork bere gain hartzeari buruz Zerga eta Politika Fiskaleko Kontseiluak 2025eko otsailaren 26an hartutako erabakiak ez dezan ondoriorik eduki Nafarroaren oinarri-urteko ekarpenean.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 220. artikuluan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du:

Iragan otsailaren 26an, Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluak onetsi zuen Estatuak bere gain hartzea araubide erkideko autonomia-erkidegoen zorreko 83.252 milioi euro. Neurri hori Ogasun Ministerioak proposatu du, eta gehiengoaren abala izan du kontseiluan.

Ogasuneko ministroak bileran berretsi zuen zor autonomiko hori bere gain hartzearen erabakia hartzen dela Gobernu zentralak aurreko finantza-krisiari emandako erantzuna ez zelako egokia izan, eta hortik heldu zela ukitutako autonomia-erkidegoen kontuek pairatu duten narriadura handia. Izan ere, gehiegi zorpetu behar izan ziren,

Autonomien Likidezia Funtza bezalako mekanismoen bidez, eta, gainera, finantza-murrizketa handiak onartu behar izan zituzten.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legearen 54.2.c) artikulua honako hau ezartzen du:

"Betiere, Foru Komunitateak bere gain hartzen ez dituen zamatzat jotzen dira, besteak beste, honako hauek: (...) c) Estatuaren zor guztien interesak eta amortizazio-kuotak".

Bestalde, 28/1990 Legearen 56.1.c) artikulua honako hau ezartzen du:

1. "Foru Komunitatearen ekarpen osoari, konpentsazio gisa, kopuru hauek kenduko zaizkio: (...) c) Estatuko Aurrekontu Orokorrek duten defizitaren zati egozgarria".

2025 honetan zehar, Estatuarekin negoziatu eta adostu beharko litzateke, 28/1990 Legearen 59. artikuluan ezarritakoaren arabera, ekarpenaren eguneratzea, bosturtekoaren oinarri-urteari dagokion ekarpen likidoaren zenbatekoa finkatzeko. Hori dela-eta, honako mozio hau aurkezten da, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean eztabaidatua eta onetsia izateko:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du, 2025-2029 bosturtekoaren oinarri-urteko negoziazioan Estatuaren zorren interesak eta amortizazio-kuotak Foru Komunitateak bere gain hartu gabeko kargatzat jotzeari dagokionez, horien zenbaketatik kanpo utz daitezkeen Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluak 2025eko otsailaren 26an hartutako erabakitik erator litezkeen kopuruak. Erabaki horren bidez, onetsi zen Estatuak bere gain hartuko zituela araubide erkideko autonomia-erkidegoen zorreko 83.352 milioi euro, bai oinarri-urte horretarako bai zorra bere gain hartze horren eraginpean egoten ahal diren guztietarako".

Iruñean, 2025eko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/MOC-00119. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita behar diren tresnak ezar ditzan Nafarroaren ondarearen gaineko kultur astearen proiektua ezartzeko aukera eman dakien hori egin nahi duten ikastetxeei

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen da behar diren tresnak ezar ditzan Nafarroaren ondarearen gaineko kultur astearen proiektua

ezartzeko aukera eman dakien hori egin nahi duten ikastetxeei. Mozioa 2024ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00015. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako gazteriaren kultur ekoizpena bultzatuz, Arte Gaztea fabrikak abian jarrita

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen da Nafarroako gazteriaren kultur ekoizpena

bultzatuz, Arte Gaztea fabrikak abian jarrita. Mozioa 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00116. Galdera, 2021eko abenduan sinatu zen PIREPen funtsen hitzarmenaren hamahirugarren klausula ez betetzeari buruzkoa*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, 2021eko abenduan sinatu zen PIREPen funtsen hitzarmenaren hamahirugarren klausula ez betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak eta Nafarroak 2021eko abenduaren 21ean sinatutako PIREPen funtsei buruzko hitzarmenaren hamahirugarren klausularen arabera ("PIREPen mugarren eta helburuen jarraipena, kontrola eta ebaluazioa"), "2024ko abenduaren 31n sinatuta egon beharko dira, gutxienez ere, 2. faseko jarduketetan konprometitutako metro koadroen % 80ren baliokide diren kontratuak".

Nafarroak ez du baldintza hori bete. Akordiorik lortu al da ministerioarekin hori dela-eta?

Iruñean, 2025eko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00117. Galdera, BSHren Ezkirozko plana ixtea ekiditeko bilerei buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, BSHren Ezkirozko plana ixtea ekiditeko bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera aurkezten du Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Iragan otsailaren 28an izan zen gobernu zentralaren, foru gobernuaren eta BSHren arteko lehenbiziko bilera, BSHren planta ixtea ekiditeko alternatibak bilatzeko, Ezkirozko planta itxiko dela iragarri zenean hiru aldeek Madrilen urtarrilaren 10ean izandako lehen hartu-emanean adostu bezala.

Hurrengo bilerak egiteko egutegia itxita al daukazue? Hala ez bada, noiz aurreikusten duzue eginen dela hurrengo bilera?

Iruñean, 2025eko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-25/PES-00118. Galdera, Latasako eta Iruña-Sanduzelaiko uraren kalitatearen kontrol automatikorako sareko estazioei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Latasako eta Iruña-Sanduzelaiko uraren kalitatearen kontrol automatikorako sareko estazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun diezaien:

Uraren kalitatearen kontrol automatikorako sarean (SAICA sarea) Nafarroako Gobernuak kontrolatzen dituen estazioen artean daude Latasakoa (SAICA 03) eta Iruña-Sanduzelaikoa (SAICA 07), Arga ibaian.

Estazio horien funtzionamenduari buruzko honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

1. Joan diren urtarrilean eta otsailean arazorik detektatu al da amonioaren irakurketa egiteko sentsoreei dagokienez (N-NH₄)?

2. Sentsore horiek arrazoiren batengatik deskonektatu al dira? Zein?

3. Gobernuaren ustez, egiazkoak al dira urtarilaren 23az geroztik denbora errealean argitaratzen ari diren datuak?

Iruñean, 2025eko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/PES-00119. Galdera, nitratoek urak kutsatzearen diagnostikoan herritarrek parte hartzea sustatzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamari-que jaunak egindako galdera, nitratoek urak kutsatzearen diagnostikoan herritarrek parte hartzea sustatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamari-que jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapide-tu ditzan eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua errefusatzeko eta balioa kentzen ari zaie elkarte ekologistek eta bizilagunek Nafarroako zenbait udalerritan (Martzilla, Mendigorria, Larraga...) egindako nitrato-neurketei, horretarako argudiatuz

laginketaren prozedurari, laginketen konfiantza-mailari, laborategiari... buruzko arrazoiak.

Nekazaritza-iturrietatik heldu diren nitratoek eragindako kutsadura lausotik urak babesteari buruzko 47/2022 Errege-dekretuaren 9. artikulua honako hau ezartzen du: "e) Adierazitako laginketa horien osagarri, arroko organismoek eta autonomia-erkidegoek bultzatuko dute herritarrek arazo horren diagnostikoan parte hartzea. Horretarako, agintariak diagnostikorako sistema bakunak ematen ahalko dizkiete interesdunei, inpaktupeko eremuak edo puntuak detektatzea ahalbidetuko dutenak, beren ikerketa espezifikoa horietara zuzendu ditzaten".

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

1. Nola bultzatuko duzu herritarrek uren kalitatearen diagnostikoan parte hartzea, 47/2022 Errege-dekretuak ezartzen duen bezala?

2. Ekologistak eta bizilagunak egiten ari diren laginketak deskalifikatu beharrean, Departamentuak kolektibo eta interesdun horiei ez al dizkie emanen diagnostikorako sistema bakunak, nitratozko kutsaduraren inpaktupeko eremuak edo puntuak detektatzea ahalbidetuko dutenak, beren ikerketa espezifikoa horietara zuzendu ditzaten?

Iruñean, 2025eko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamari-que

11-25/PES-00120. Galdera, energia elektrikoa ekoizteko eta banatzeko instalazioetako obretan zuhaitzak mozteari eta basoberritzeko proiektuak egiteari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, energia elektrikoa ekoizteko eta banatzeko instalazioetako obretan zuhaitzak mozteari eta basoberritzeko proiektuak egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Abenduaren 26ko 24/2013 Legeak, Sektore Elektrikoari buruzkoak, honako hau xedatzen du 2.2 artikuluan: "Argindarraren hornidura interes ekonomiko orokorreko zerbitzua da". Bestalde, honako hau dio 54. artikuluan: "Argindarra sortzeko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioak herri-onurakotzat hartuko dira, bai eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko 3.000 kW-etik gorako potentzia duten estazioetako azpiegitura elektrikoak ere, horiek ezartzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzeari eta bidezorra baliatzeari dagokienez".

Abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legeak, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzkoak, honako hau dio 23. artikuluan:

"1.- Interes orokorreko azpiegiturak eraikitzeke proiektuetan oihan azalera gutxitzerik agertzen bada, ukitutako eremurako basoberritzeko edo basoa lehengoratzeko proiektua erantsiko da, gu-

txienez ere okupatuko den lur saila adinako azalera batean.

2. Oihan administrazioak aztertu eginen du interes publikoko azpiegiturak eraikitzeke proiektuek hondatu edo urez hartuko luketen oihan azalera, eta aginduzko txosten loteslea emanen du horiekin batera aurkezten zaizkion basoberritzeko edo basoa lehengoratzeko proiektuen egokitasunari buruz".

Azken urteotan, inbertsioak egin dira hornidurara bideratutako argindarra ekoizteko eta banatzeko hainbat instalaziotan, eta zenbait zuhaitzklase ebakitzea ekarri du horrek, kasu batzuetan masiboki ebaki ere.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkezten ditugu, idatziz erantzun dakien:

1. Zenbat basoberritze-proiektu aurkeztu zaizkio Gobernuari 2010. urteaz geroztik, argindarra ekoizteko edo banatzeko instalazioak egiteko aurkeztuak izan eta baso-azalaren murrizketa zekarten dozenaka proiektuetan?

2. Zer proiektu dira horiek? Ala, baimenak ematean, ez al da kontuan hartu zuhaitz-mozketaren auzi hori?

3. Gobernuak kalkulatuta ala inbentariatuta al du zenbat zuhaitz moztu diren Nafarroan 2010az geroztik, argindarra ekoizteko edo banatzeko instalazioetarako obrak gauzatzearen ondorioz? Zenbat izan dira, eta nola banatzen da mozketa?

4. Gobernuak ba al du basoberritze-proiektuak exijitzeko asmorik argindarra ekoiztu edo banatzeko instalazioetarako obrak gauzatze aldera aurkezten diren proiektu berrietan, horiek zuhaitz-masei eragiten dietenean?

5. Zehazki, Gobernuak ba al daki zer eragin izan dituen zuhaitz-masa desberdinetan Larraga udalerriko San Marcos II proiektu eolikoaren gauzatzeak? Gobernuak ba al daki zenbat zuhaitz ebaki diren proiektu horretan? Hartu al du neurriren bat ebakitzeko zuhaitzak bezainbeste ale birlandatzeko?

Iruñean, 2025eko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/PES-00121. Galdera, nitratoen aitzinean zaugarriak diren eremuei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, nitratoen aitzinean zaugarriak diren eremuei buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun diezaien:

Nitratozko kutsadura da azaleko eta lurpeko uretan nitrato-kontzentrazioa areagotzea, eta berekin dakar urtar ekosistemen balizko eutrofizazio eta, beraz, degradazioa. Uretan nitrato-kontzentrazio handia egoteak eragina izaten ahal du pertsonen osasunean eta ongizatean.

Nafarroari buruz honako hau esaten da Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak eginiko "91/676/CEE Zuzentarauaren Jarraipen Txostena, Nekazaritzan erabilitako nitratoen ondoriozko ur-kutsadura, 2016-2019 laurtekoa" txostenean:

"5.2.15. Nafarroako Foru Komunitatea 5.2.15.1. Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritza-jardueren deskribapena eta nitrogeno-kargaren ebaluazioa; eremu kalteberen egungo azalera (2020) 995 km²-koa da. 2016-2019 informazio-aldian, eremu kalteberen guztizko azalera 989 km²-koa zen, gaur egungoaren (2020) berdina beraz, eta Nafarroako Foru Komunitatearen azalera osoaren % 10 egiten du horrek. Eremu kalteberen azalera % 76 handitu da 2016-2019 aldian. Kopuru hori % 317raino igotzen da, estimazioak 2012-2015 informazio-aldian zegoen azalarekin alderatuta egiten badira".

Ura nekazaritzan erabilitako nitratoen ondoriozko kutsaduratik babeste aldera, Kontseiluaren 91/676/EEE Zuzentaraua onetsi zen, 1991ko abenduaren 12koa.

2018ko azaroan jaso zen Espainiako Estatuari eta autonomia-erkidegoei dei egiten zien idazki hori, zeinaren bidez eskatzen baitzen zenbait hobekuntza egitea jarduketa-programa onetsietan. Zehazki, Foru Komunitateari eskatzen zitzaion barne har zitezela abelburu bakoitzeko nitrogeno-irizkinak, hobeki zehaztu zitezela simaur- eta minda-gordailuen eraikuntza-ezaugarriak, eta arautu zedila lurzati aldapatsuetako ongarritze solidoa. 2020ko uztailaren 2an, Europako Batzordeak irizpen arrazoitua eman zuen, Nafarroa barnean hartzen duena, Nitratoen Zuzentarauaren zenbait ez-betetze zirela-eta Espainia Europako Justizia Auzitegira eraman aurretikoa. Izan ere, gaur arte argitaratutako xedapenek ez dituzte Zuzentarauaren puntu horiek betetzen. Nafarroari dagokionez, irizpen horretan ondorioztatzen zen kutsadura areagotzerantzko joera dagoela kontrol-puntuetan, are nitratoekiko kalteberatzat jadanik deklaraturako eremuen barnean daudenetan ere.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren irailaren 15eko 147E/2020 Foru Aginduaren bidez, berrikusi egin ziren nekazaritza-jatorriko nitratoz kutsaturako ura izan dezaketen eremu kalteberak, eta 2018-2020 aldirako jarduketa-programak aldatu ziren. Foru agindu horrek berriz handitu zuen eremu kalteberen azalera, eta horren arabera zenbait neurri hartu behar ziren, aurreko 247/2018 Foru Aginduaren osagarri.

Nafarroako Arartekoaren Q21/1167 Ebazpenaren bidez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari gomendatu zitzaion har zitzala hartu beharreko neurriak, bermatzekoak kexan aipatzen den Martzillako eremuko nitrato-presenziak ez dituela gainditzen ezarritako atalaseak, eta segurua dela osasun publikoarentzat eta ingurumenarentzat. Kexa horretan, Landa Garapeneko Departamentuak txosten bat jaulki zuen, zeinetan honako hau jasotzen baita: "5) Ildo horretatik, aurreikusita dago aurten hasiko dela eremu kalteberen hautapenaren eta eremu horietako jarduketa-programen eguneraketa. Hain zuzen ere, jarduketa-programa horietan neurri egokiak jaso behar dira azaleko eta lurpeko uren nitrato-ku-

tsadura ekiditeko eta kutsatutako ur-masen egoera iraultzeko”.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzunak izateko:

1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak oraindik ez du egin nekazaritza-iturrietatik sortutako nitratozko ur-kutsadurarekiko kaltebera diren eremuen eguneratze edo berrazterketa. Zergatik da hori horrela, kontuan hartuta aurrekoaren indarraldia 2018tik 2020ra bitartekoa zela?

2. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak noiz aurreikusten du onetsiko dela eremu kaltebera horiek arautzeko foru agindu berria?

3. Zer azterlan edo ekintza egin ditu irailaren 15eko 147E/2020 Foru Agindu hori onetsi zenez

geroztik, dagoeneko egoeraren diagnostiko erabateko bat eskueran izateko, nitratozko kutsaduran parte hartzen duten eragile desberdinen erantzukizun zehatzak identifikatze aldera?

4. Zer jarduketa-programa gauzatu ditu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak irailaren 15eko 147E/2020 Foru Agindu hori onetsi zenez geroztik, nekazaritza-jarduerekin eta -teknikekin koordinatuta, nitratoek uretan dituzten efektuak desagerrarazte edo minimizatze aldera? Zer emaitza lortu dira Nafarroan aitortutako eremu kaltebera bakoitzean?

Iruñean, 2025eko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/PES-00122. Galdera, Estellerriko eskualdeko garraioa urgentziaz hobetzeari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Estellerriko eskualdeko garraioa urgentziaz hobetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 14. artikuluan xedatzen denaren babesean, honako informazio hau eskatzen dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari:

Nafarroako Gobernuak zer plan darabil Estellerriko eskualde-garraioa premiaz hobetzeko?

Iruñean, 2025eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/PES-00123. Galdera, Martzillan inauterian izandako gertaerei buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Martzillan inauterian izandako gertaerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko du, Martzillan ez dadin berriz gerta behaketa- eta harrera-zentroan bizi diren adingabeekin joan den inauteri-asteburuan gertatutakoa, bertako udalak eskatu dion bezala?

Iruñean, 2025eko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-25/PES-00124. Galdera, Nafarroan diren lur arraroen mapa bat prestatzeari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroan diren lur arraroen mapa bat prestatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du txostenik, azterlanik, Geologia eta Meatzaritzako Institutuarekiko hitzarmenik edo lanik aurreratuta, zeinari esker laster egin ahal izanen baita Europar Batasunak lehengai kritikotzat jotzen dituen 17 mineraletatik –lur arraroretatik, alegia– Nafarroan badaudenen mapa, bai eta horien balizko ustiapen-potzialtasunarena ere?

Iruñean, 2025eko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/PES-00125. Galdera, jakiteko ea hitzarmenik sinatu den ECOEMBESen ontzien eta ontzietako hondakinen SCRAP-EEZSKrekin (ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboa)

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, jakiteko ea hitzarmenik sinatu den ECOEMBESen ontzien eta ontzietako hondakinen SCRAP-EEZSKrekin (ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboa).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapide-

tu ditzan eta Landa Garapeneko eta Ingurumene-ko Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

1. Nafarroako Gobernuak sinatu al du hitzarmenik ECOEMBESen ontzien eta ontzietako hondakinen SCRAP-EEZSKrekin (ekoizlearen erantzukizun areagotuaren sistema kolektiboa)?

2. Hitzarmen horretan inola ere aipatzen al da zer-nolako egoera eratorriko litzaiekeen ontzi-bilketaren gaineko eskumena duten toki-entitateei, hitzarmenaren indarraldian zehar gordailatze-, itzultze- eta berrerabiltze-sistema bat ezartzetik?

3. Erantzuna baiezkoa baldin bada, zer ondorio aurreikusten da izan litezkeela baldin eta Nafarroan gordailatze-, itzultze- eta berrerabiltze-sistema bat ezarriko balitz?

4. Erantzuna ezezkoa baldin bada, hitzarmenari lotzen ahal zaizkion toki-entitateentzat zer ondorio juridiko suerta litezke Nafarroan gordailatze-, itzultze- eta berrerabiltze-sistema bat ezartzetik?

Iruñean, 2025eko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/PES-00126. Galdera, Nafarroako toki-entitateetako polizietako funtzionarioak Nafarroako Foruzaingoan sartzeko araudiari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroako toki-entitateetako polizietako funtzionarioak Nafarroako Foruzaingoan sartzeko araudiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu daitezten eta idatzizko erantzuna eman diezaien Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuak:

Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen zazpigarren xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du Nafarroako toki entitateetako polizietako funtzionarioak Nafarroako Foruzaingoan sartzeari dagokionez:

"Nafarroako tokiko polizietako funtzionarioek Nafarroako Foruzaingoan sartzeko aukera izanen dute, jatorriko polizian duten kategoria edo enplegu berarekin, edo pareko kategoria edo enpleguan, foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere urtebeteko epean Nafarroako Gobernuak Foru Parlamentura igorriko duen erregelamendu batean zehazten diren baldintzetan, baldin eta sartzeko hautaprobetan parte hartu ahal izateko eskatzen diren betekizunak betetzen badituzte".

Xedapen hori 2018ko azaroaren 21ean sartu zen indarrean; beraz, langile horiek Foruzaingoan sartzeko erregelamendua onesteko epea 2019ko azaroaren 1ean amaitu zen.

Hori dela-eta, ondoko galderak aurkezten ditugu:

1. Zergatik ez da oraindik egin Nafarroako toki-entitateetako polizietako funtzionarioak Nafarroako Foruzaingoan sartzeko arautzen duen erregelamendua, hain zuzen Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen zazpigarren xedapen gehigarriak behartzen duen bezala?

2. Departamentuak izapiderik egin al du prozedura abiatzeko?

3. Departamentuak noizko aurreikusten du onetsiko dela erregelamendua?

Iruñean, 2025eko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/PES-00127. Galdera, Tuterako Ospitaleko eskanerraren matxurari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Tuterako Ospitaleko eskanerraren matxurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Osasuneko kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

Eskanerraren matxurak zer eragin izan du, otsailaren 14tik 19ra bitarte, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko erradiologia zerbitzuaren lanean, eta zer konponbide planteatu dira?

Iruñean, 2025eko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/ELCC-00001. Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Kontseiluko kontseilari bat hautatzea

HAUTAGAIA ALDARRIKATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Kontseiluko kontseilari berri bat hautatzeari buruz 2025eko urtarrilaren 13an Mahaiak hartutako erabakiarekin bat, José Luis Goñi Sein jaunak bere agintaldia amaitu baitu, eta Nafarroako Parlamentuari dagokionez hura proposatzea, ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Kontseiluko kontseilari izateko Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko hautagai honako pertsona hau aldarrikatzea:

– Inés Olaizola Nogales andrea, Nafarroako Unibertsitate Publikoak proposatuta.

2. Erabaki hau Inés Olaizola Nogales andreari, Nafarroako Kontseiluari eta Nafarroako Unibertsitate Publikoari jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/GRP-00007. . Foru parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartearen uztea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 13an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Foru parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak idazki bat aurkeztu du 2025eko martxoaren 12an, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuko Mahaiari jakinarazten baitio utzi egiten duela Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartearen.

Aipatu idazkia ikusirik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 34.1.b), 37 eta 38.1 artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Jasotzat ematea Nosti Izquierdo andreak idazkia, zeinaren bitartez jakinarazten baitu utzi egiten duela Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartearen.

2. Nosti Izquierdo andreak foru parlamentari atxikigabe gisa sailkatzea. Horren ondorioz, galdu egiten ditu foru parlamentarien elkartearen ordezkari gisa betetzen zituen karguak eta postuak.

3. Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartearen desegitea, hura eratuta egoteko beharrezkoa denez bi foru parlamentari baino gutxiagokoa ez izatea, eta Jiménez Román jauna talde mistoaren kide bakar deklaratzeko.

4. Parlamentuko zerbitzu juridikoei txosten bat egin dezaten eskatzea, foru parlamentari atxikigabe berriaren estatusari eta Legebiltzarreko lanaren antolaketarentzako balizko ondorioei buruzkoa.

5. Erabaki hau Nosti Izquierdo andreak eta Jiménez Román jaunari helaraztea.

6. Erabaki hau jakinaraztea talde parlamentarioen eledunei, Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuko zerbitzuei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias